KULTUR EKINTZA ETA HEZKUNTZA SAILA

Elikagaiak artean

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

bbk

Sarrera

Jatea pertsonen oinarrizko beharrizana da, biziraun ahal izateko funtsezkoa. Beharbada horregatik, elikagaien agerpen artistikoa gizakiaren etengabeko ardura izan da betidanik. Errepresentazio horien bitartez, artistek ideia ugari proiektatu ditzakete, eta, hain zuzen ere, ideia horiek oso bat eginda daude, kasu batzuetan, giza izatearekin, eta, beste zenbait kasutan, naturaren bizi-zikloarekin.

Gaur egun, etengabe eskuratu ditzakegu elikagai mota guztiak, eta, edozein urtaro dela ere, elikagai horietako gehienak merkatuan izaten ditugu, jasotzen duten manipulazioaren ondorioz. Hori dela eta, sarri askotan, produktuetako batzuk ez dira gure eskuetara heltzen berez dagozkien garai edo urtaroan. Hala ere, zenbait elikagairi buruz pentsatzen badugu, oraindik ere urtaro jakin batekin lotuko ditugu: gaztainak udazkenarekin, antxoak udaberriarekin, edo ortuko zenbait produktu, adibidez meloia eta sandia, udarekin. Argi dagoena da, duela zenbait hamarkada, elikagaien bizitza-zikloa urtaroei lotuta zegoela ezinbestean.

Elikagaiek artean duten agertzeko moduari buruzko ibilbide honi esker, hobeto ezagutu ditzakegu gure arbaso "hurbilen" elikadura-ohiturak, berriro deskubritu dezakegu elikagaien eta urtaroen arteko lotura, eta berriro planteatu dezakegu erosten eta kontsumitzen ditugun produktu gehienen ekoizpenaren eta manipulazioaren oinarria. Gainera, jaten ditugun gauza ugarien atzean, sekula imajinatu ez dugun ideia "garrantzitsuz" osatutako mundu bat aurkitu ahal izango dugu. Azkenik, bisita hau aukera ona izan daiteke, gazteenek zalantzan jar ditzaten euren elikadura-ohiturak, eta, aldi berean, ulertu dezaten ea ohitura horiek euren arbasoenak baino osasungarriagoak diren edo ez, eta deskubritu dezaten ea zerbait egin ote daitekeen ildo horretan, bizi-kalitatea hobetu ahal izateko. Azken batean, elikagaiekin dugun harremanari buruz gogoeta egin behar dugu.

Elikagaien balio sinbolikoa

Beste zenbait iritziz gain, erlijio katolikoak hainbat adibide eskaintzen ditu, elikagai batzuen balio sinbolikoa modu sinplean ulertu ahal izateko. Nork ez du inoiz entzun ogiari eta ardoari buruzko aipamenik, Kristoren gorputza eta odola balira bezala? Kultuak irauten duen bitartean, elikagai bi horiek gorputz eta odol gisa "itxuraldatzen" dira hurrenez hurren, eta, ondorioz, elikagai sakratu bihurtzen dira.

Artearen munduan, elikagai horien eta beste batzuen gaitasun sinbolikoa erabili izan da. Adibidez, sarri askotan, frutak aurkitzen ditugu gai erlijiosoko lanetan, batzuetan Ama Birjinaren beraren eskuetan. Sagarra biribila denez, ludia (Lurra) sinbolizatu dezake, baina bekatua eta tentazioa ere bai (Eva). Alabaina, Ama Birjinaren eskuetan badago, gizateria Paradisura itzuli dela eta erredentzioa lortu duela esan nahi du (Eva berria). Nahiko ohikoa den beste fruta bat granada da; izan ere, pipita ugari izaten dituenez eta kolore gorri bizikoa denez, bizitzaren betetasunaren eta etengabeko berrikuntzaren sinbolo da (berpizkundea). Mahats-mulkoek etorkizuneko ardoari egiten diote erreferentzia, eta, hain zuzen ere, ardoak Kristoren odola sinbolizatzen du. Badakigu, era berean, izaera erlijiosoko lanetan arrainak agertzen direnean, hori kristauei buruzko aipamena izaten dela (ogien eta arrainen miraria).

Elikagaiak eta ospakizunak. Aisialdia

Betidanik, elikagaiak izan dira edozein gertakari ospatzeko modurik onena (Gabonak, herriko jaiak, urtebetetzeak eta abar). Produktuen kalitatearen arabera, produktu horiek ospakizun jakin baterako eskuratu dituen pertsonaren maila soziala edo estatusa sumatu daiteke. Garestitzat edo urritzat hartutako zenbait elikagai (kabiarra, mariskoa...) aukeratzeak nolabaiteko garrantzia ematen dio gertakari bati (ezkontzak, bataioak...), eta, gainera, anfitrioiaren erosteko ahalmenaren berri ematen du. Beste alde batetik, ohikoa da lagun eta senideak mahai baten inguruan elkartzea, ez soilik jateko asmoz, baizik eta hitz egiteko, esperientziak konpartitzeko eta, azken batean, une atsegina igarotzeko asmoz ere. Jakiak (apalak zein luxuzkoak) eta plazera ia beti eskutik joan dira. Esate baterako, txoko eta sozietate gastronomikoen ohitura oso errotuta dago gure inguruan.

Elikagaien produkzioa, salmenta eta manipulazioa

Guk elikagaiak erosi edo eskuratu ditzagun, beste batzuek elikagai horiek ekoitzi behar izan dituzte. Gaur egun oso ohituta gaude elikadurako produktu mota guztiak egiten dituzten enpresa handiekin, baina, oraindik ere, ekoizle txikiak existitzen dira, eta horietako gehienak ikusi ere egin ditzakegu, azoketan hartzen baitute parte. Guri asko gustatzen zaigu azoka horietara joatea, eta, sarri askotan, sekulako gertakariak izaten dira, adibidez Santo Tomasetako azokaren kasuan. Azoka horiei esker, berriz ere harremanetan jartzen gara produktu naturalekin. Zuzen-zuzenean usaindu eta sentitu ditzakegu, eta supermerkatuetan ez bezala ikus ditzakegu produktu horiek. Azken batean, benetakoa eta aparta den zerbaiten aurrean egotearen esperientzia eskaintzen digute.



Natura hila

Jana ria eta artea erlazionatzen ditugunean, burura arinen datorkigun irudia natura hila deitzen duguna da. Artistek arrazoi askorengatik erabili izan dute gai hau: zenbait objektu pintatzeko eta "kalitate" eta ehundura mota desberdinak islatzeko orduan duten gaitasun teknikoa erakusteko; garai bakoitzean hazten diren elikagaien bitartez, urtaroak islatzeko (gereziak eta melokotoiak udan, pikuak eta kalabazak udazkenean, eta abar). Modu horretan, gure arbaso ez hain urrunen elikadura-ohiturak ezagutu eta jarraitzeko aukera dugu. Hala ere, artista gehienentzat, natura hilak pintatzeko arrazoi nagusia koadroan ikusten denaren errealitate zuzena "gainditzea" da, elikagaiak erabiliz denboraren igarotze errukigabearen sinbolo gisa, adierazi nahirik alferrik dela lurreko gauza materialei eustea, gauza horiek ez baitira gurekin egongo gu hil ostean. Hori da, hain zuzen ere, artearen munduan *vanitas* izenarekin ezagutu izan dena. Hori dela eta, natura hil gehienek (garai batean, etxe aberatsetako jantokiak apaintzeko erabiltzen ziren) bizitzaren gaineko zentzu erlijioso sakona dute. Duela gutxi, artista asko natura hilarekin interesatu dira, artearen munduan apustu formal berriak ikertu eta abiarazteko arrazoi nagusi gisa, bai eta pintura tradizionalarekin erlazionatutako erronka eta arlo berriak planteatzeko ere. Halaxe gertatzen da, adibidez, margolari kubistekin.

Bisitarako jarraibideak

Bisita honetako koadro bakoitzak galdera jakin batzuen inguruko proposamen propioa daukan arren, taldearen arduradunak beherago proposatzen diren gaiekin hasteko aukera dauka.

Galdera sinpleetan oinarritutako metodo honi esker, ikasleek pentsamendu kritikoko trebetasunak garatu ahal izango dituzte, eta artelanetako elementu formalei buruz hitz egin eta elementu horiek aztertu ahal izango dituzte. Kontua ez da soilik informazioa pilatzea; gainera, artelanetan euren kabuz ikusten dutenari buruzko interpretazioak egitera ere animatzen ditugu. Ekimen honen helburua da, aukeratutako lanen bitartez, ikasleen arteko elkarrizketa sustatzea, artea erabiliz ikasketarako bide gisa.

Bisitaren metodoa

1. Lehenengo eta behin, zure ikasleek hogeita hamar bat segundoz aztertu beharko dute aukeratutako lana, isil-isilik. Gero, horri buruzko komentarioak egiten hasiko dira.

2. Ez da beharrezkoa artearen historia ezagutzea, galdera hauei modu koherentean erantzun ahal izateko.

3. Bisitaren planteamendua ikasleen hausnarketa piztea eta euren komentarioak azaleratzea da, eta ez hainbeste "benetako erantzunetara" heltzea.

4. Komenigarria da lanaren izenburua ez irakurtzea, umeak hizketan hasi aurretik. Esku artean duzun informazioa neurrian erabili; soilik ikasleek esan dutenaren testuinguruan beharrezkoa baldin bada, eta komentarioak denboratxo batez ahoz aho ibili ostean. Informazio gehiegi emanez gero edo informazioa arinegi emanez gero, beharbada ez dute parte hartuko eta ez dute iritzirik emango.

5. Hasteko, galdera hau egin dakieke ikasleei:

   Zer ikusten duzue koadro honetan?

Ondoren, beharrezkoa baldin bada, honelako galderak egin daitezke:



Zer gehiago ari da gertatzen?

Zer gehiago ikusten duzue?

Zerbait gehiago esan dezakezue?

Beste norbaitek zerbait desberdina ikusten du?

6 Artelanaren azterketa zehatzak aberastu egiten du ikasleen behaketarako trebetasuna, eta, ondorioz, euren erantzunak askoz ere konplexuagoak dira. Beste alde batetik, oinarrizko galdera horiei erantzunez, eztabaidatzen ari diren irudiari buruzko ondorioak atera ditzakete, eta iritzi horietara nola heldu diren jakingo dute. Beraz, hasierako galderaren ostean, beste galdera hau planteatu daiteke:

Zer ikusten duzu hor, esan duzun hori esateko?

Galdera horri esker, euren hasierako erreakzioei buruz egiten dute gogoeta, eta koadroaren inguruko ebidentzia argiarekin hasten dira berriro hizketan. Hauek izan daitezke beste zenbait aldaera:

Zergatik uste duzu hori?

Non ikusten duzu hori?

Zer iritzi duzu horri buruz?

Esan dezakezu zerbait gehiago horri buruz?

7 Azkenik, eta artelan bakoitzari buruzko komentarioen amaieran, laburbildu itzazu zure ikasleek azaleratu dituzten punturik interesgarrienak, lan bakoitza patxadaz argumentatu ostean. Jasotako erantzunetara bueltatuz, ikasleen ideiak baliozkotu beharko dituzu. Ez zaitez harritu, prozesua uste baino luzeagoa bada; beti egin daitezke egoeraren araberako aldaketak.

Eskola-umeentzako proposamenak

Ikasleek ondoren aipatzen diren lanak ikusiko dituzte. Behin museoan, aukeratutako artelanaren aurrean eseri daitezke, bisitari ekiteko. Horretarako, irakasleak material honetan agertzen diren "jarraibideak" aplikatu beharko ditu. Gero, koadro bakoitzaren aurrean, ondoren zehazten diren puntuak aipatu daitezke.

Jan Mandijn
Jan-edan umoretsua
c. 1550

1

- Jai batean jaten eta edaten ari diren lagun talde handi bat ikusten ari gara. Baina zuk uste duzu guztiak ondo pasatzen ari direla? Zer iruditzen zaizkizu gonbidatuak? Beraiekin gustatuko litzaizuke jai batean parte hartzea edo beste batzuk aukeratuko zenituzke? Zeintzuk?

- Janariari dagokionez, zuk uste duzu goxoa dela edo zerbait aldatuko zenuke? Zure jaia balitz, zer nolako janaria aukeratuko zenuke lagunei eskaintzeko? Gogoratzen al zara egon zaren askeneko jaiaz eta nolakoa zen janaria?

- Koadro honen protagonistak koilaraz eta arrautza-oskolez egindako koroa darama. Honela, emakume hau tripontzi hutsa dela jakinarazten digu artistak. Baina, horren ordez, idazlea balitz, nolako objektuekin uste duzu agertuko zela?

- Bestetik, emakumea keinu berezi bat egiten ari da bere eskuarekin. Honek esan nahi du nahiko ergela dela. Joku bat proposatzen dizugu: zure eskuak bakarrik erabiliz, adierazi besteei gose eta egarri zara, edo asmatu beste gauza bat zure eskuekin azaltzeko.

Théodule-Augustin Ribot
Natura hila kalabaza, okaran, gerezi, piku eta pitxerrarekin
c. 1860

2

- Koadro honen aurrean jartzen bagara, pitxer bat eta kalabaza bat daudela ikusi ahal izango dugu. Zein fruta gehiago ikus daitezke?

- Adituek diote frutak oso onak direla osasunerako. Esaguzu zein fruta jaten dituzun gehien edo zeintzuk gustatzen zaizkizun gehien.

- Urtaroaren arabera, fruta eta barazki desberdinak jan ditzakegu. Koadro honetan ikusten ditugunak, zein urtarotakoak direla uste duzu?

- Koadro honi begiratuta, bertan agertzen diren elikagaiak usaindu ere egin ditzakegu ia. Baina, nola imajinatzen duzu usain hori? Atsegina ote da? Zergatik?

- Orain, jolas txiki bat proposatuko dizugu. Norbaitek kolore bat esango du, eta besteek kolore hori duten fruta edo barazkiak izendatu behar dituzte. Adibidez, gorria: gerezia, sandia...; berdea: piperra, sagarra...

Aurelio Arteta
Euskal emakume nekazariak fruta eta barazkiekin
c. 1913-1915

3

- Koadro honetan, frutak eta barazkiak dituzten neska batzuk ikus ditzakegu. Baina, zertan ari dira? Zein urtaro dela uste duzu?
- Zein kolore erabili ditu artistak koadro hau pintatzeko? Nolako koloreak direla uste duzu: alaiak, tristeak, hotzak, epelak...? Eta neskei dagokienez, pozik eta alai daudela dirudi, ala nekatuta eta aspertuta? Zergatik uste duzu hori?
- Orain erreparatu iezaiozu daramaten arropari. Lanerako arropa erosoak direla uste duzu? Baserriko ala hiriko neskak direla uste duzu?
- Areto honetan bertan, jateko gauzak agertzen diren koadro gehiago daude. Bilatu itzazu eta egin berba horri buruz, zure irakasle eta adiskideekin.

Jean Metzinger
Nature morte (Natura hila)
1919

4

- Aurreko koadroetan, argi ikusten ziren pintatutako gauzak, baina kasu honetan ez da hain erraza. Adi begiratu beharko dugu, jateko edo edateko gauzak non dauden aurkitu ahal izateko.
- Arretaz begiratzen baduzu, ikusiko duzu fruta-ontzi bat dagoela, eta, horren barruan, fruta pare bat eta likidoa duen botila bat. Aurkitu dituzu? Zer gauza gehiago deskubritu duzu?
- Ikusi al duzu inoiz honelako koadrorik? Zer iruditzen zaizu? Uste duzu erraza edo zaila dela gauzak honela pintatzea? Zergatik?
- Inguruan ba ote dago beste koadrorik, gauzak antzeko eran pintatuta dituenik? Zer sentsazio ematen dizute?

Elikagaiekin erlazionatutako zenbait jarduera

Ipuinak eta elikagaiak
- Barbantxo
- Indaba magikoak...

Munduko jakiak
- Txina: arroza...
- Italia: pasta...

Usain/zapore gordinen dastaketa (frutak)

Elikagaiekin egindako konposizioa
- Konposizio estetikoa: kolorea, forma, bolumena...
- Ordena: fruten eta barazkien kaxak, janari japoniarraren aurkezpena...
- Desordena: jakiak nahastuta (paella, kus-kusa, gisatua...).
- Umeen aurpegien irudiak erabiliz, "landare-irudi" bat konposatu, XVI. mendeko Giuseppe Arcimboldo artistak egin zuen antzera.

Giuseppe Arcimboldo
Vertumnus (Rodolfo II.a enperadorea)
1590
Skokloster Jauregia, Stockholm

- Begetalen irudiekin ere konposatu daiteke paisaia bat, eta paisaia hori istorio bat garatzeko eszenatoki gisa ere erabili daiteke.



Carl Warner
Brokolien basoa
www.carlwarner.com

Plater/errezeta bat asmatzea, berezia den norbaitentzat (museoa?)
- Zein osagai iradokitzen dizkigu pertsona horrek?
- Zer jai edo ospakizun mota egingo dugu?
- Plater bakarra izango da, ala bat baino gehiago?
- Zer lortu nahi dugu horrekin?

Artelanen kokapena





DEAC
Museo Plaza, 2
48009 BILBAO

Tel. 94 439 61 41
Fax. 94 439 61 45

deac@museobilbao.com
www.museobilbao.com